



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.agoitz.eus – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

84 zk.-2024ko iraila
UZTAILA-ABUZTUA LABURPENA

Agoizko festak, arrakastatsuak eta parte-hartze handikoak

Agoizko Udalak poz handia erakutsi du festei buruzko balantzean. Izan ere, parte-hartzea handia izan da abuztuaren 10etik 14ra, eta ez da istilu nabarmenik izan. Ia 70 ekitaldi programatuta, eta 114.000 euroko aurrekontuarekin, festa-giroa eta errespetua izan ziren nagusi. Ekitaldi guztiak aurreikusi bezala egin ziren, astearte arratsalde -gauerako (hilak 13) programatutako jarduerak izan ezik, bertan behera geratu baitziren ekaitz handi baten erruz.

Abuztuaren 10ean, larunbatarekin, txupinazo hunkigarriak eman zien hasiera festei. Erraldoi eta buruhandien konpartsak jaurti zuen, bere 50. urteurrena ospatzeko. Kulturgunea herri-foroak ohiko suziria jaurtitzeko ohorea eman zien, haien ibilbidea aitortzeko. Konpartsak kide beteranoek eta egungoek metxa piztu, eta hasiera

eman zioten bost eguneko giro alaiari. Lehentxeago, Aurelio León aretoan, bete-beterik zegoela, sariak eta aitortzak eman zizkieten hainbat auzokideri eta tokiko kolektibori, joan den urtean herrian gizarte-, kirol- eta kultura-garapenera lagundu ziotenei, zehazki.

Igandean, Agoitzek bere egun handia bizi izan zuen, eta erraldoien ohiko elkarretaratzea egin zen beste behin ere. Zortzi konpartsak kolorez eta musikaz bete zituzten kaleak. 1988tik, hau da, herrian lehen erraldoi-topaketa egin zenetik, izandako handiena izan da aurtengoa. Agoizko konpartsa oso-oso zegoela, 38 figura bildu ziren egun gogor-gogor batean, 40 graduren bueltan. Ondoren, San Migelen omenezko prozesioa, Argizariaren Meza, San Miguel abesbatzak kantatua, eta erraldoien baltsa, Milaur gaita-

ri-taldearen erritmoan, egin ziren. Agoizko Dantzari Taldeak euskal dantzen errepertorioa erakutsi zuen, taldeka, Agoizko txistularien doinuak lagunduta. Ondoren, txorizoa, gazta eta ardoa banatu ziren, ohi bezala. Eta, arratsaldean, pilota-partida bizi-biziak jokatu ziren Toki Eder pilotalekuan.

Haurren egunak haur-korporazioari eman zion protagonismoa. Aitor Ugalde Larrea alkate gaztea buru zuela, belaunaldien berritzea eta herriaren etorkizun oparoa sinbolizatu ziren. Bukatzeko, zapia jarri zieten 2023an jaiotako 31 haurrei. Ondoren, suziria eta desfilea, apar-jairaino, Iturzarrea parkean. Kantuz-ekoek kaleak girotu zituzten paella-jate herrikoia hasi baino lehen. 400 mahaikide bildu ziren, parkean. Eta, arratsaldean, etxeko haur-mozorroen lehiaketaren desfile ikusgarri eta originala.



Unai Beroiz



Unai Beroiz



AGOIZKO UDALAREN KOMUNIKAZIO, INFORMAZIO ETA PARTAIDETZA PLANA 2024

Berrien buletin hau e-mailez jaso nahi baduzu, igorri mezu bat comunicacionaoiz@gmail.com-ra, eta bertan adierazi gaia, hots, buletina.

Gazteen eguna nabarmenagoa izan da aurtan, Kostradaren Kofradiak ekitaldi luzeagoa egin baitzuen; besteak beste, Agoizko Kostradaren VII. Saria eman zuen, Isabel Leache Goñiri, zehazki. Ondoren, desfilea eta senidetan-bazkaria. Herri-kirolak eta trikitixak ere izan ziren, eta, arratsaldean, euria gogotik bota arren, gazteek kaleak hartu zituzten beren egunean.

Pertsona nagusien egunak festan amaiera ekarri zuen. San Migeli eskaintza egin zen, Bilaketa ahots- eta instrumentu-taldeak girotuta, eta, gero, aperitiboa, parkean, Iraunkorrak txarangak girotuta. Ondoren, udalbatzak, erraldioen konpartsak, gaitariak eta txarangak Maiquetiako Txiroen Ahizpa-arreba Txikien egoitza bisitatu zuten. Bukatzeko, elizako lo-

rategia izan zen neska-mutikoen erraldioen konpartsari egindako agurraren lekuko.

Agoizko Udalak bere esker ona adierazi nahi die herritar, kolektibo eta udal-langile guztiei, ekarpen ederra egin baitute festak arrakastatsua izan zitezen, egun horietan elkarbizitza eta alaitasuna nagusi izan zitezen.



Unai Lako



Marian Zozaya

Eraso sexisten aurka

2022ko udan, lankidetzaren prozesu baten bidez, Agoizko jai-eremuetan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta haren aurrean koordinatzeko lehen protokoloa egin zen.

Urte horretan berean, "Talde Morea" izeneko taldea sortu zen, Agoizko emakumeek sortua (gizarte- eta kultura-erakundeetakoak, zerbitzariak, zinegotziak eta emakumeak, oro har). Ordutik, emakumeen aurkako indarkerian trebatuz joan da batzordea, eta oinarriko kontzeptuak eta aurre-ratuak bereganatu ditu.

Eta 2024 honetan handitu egin da batzordea. Horretarako, Indarkeria Sexistaren aurkako Emakumeen Iruñeko Plataformako hainbatek ezagutarazi dute nola jokatzeko duten, nola sor daitezkeen sareak eta nola hobe daitezkeen

Agoizko protokoloaren koordinazioa. Duela gutxi, bi tailer eman ziren; bata, zerbitzariarentzat baino ez (behar-beharrezkoa indarkeria handia jasaten dutelako), eta bestea, oinarriko kontzeptuak lantzeko eta laguntza-erantzuna nola eman jakiteko, autozainketa eta biziraupena azpimarratuz.

BIDEOA. Azken urteetan ohi bezala, eta festak hastear zedela, Agoizko Udalak beste bideo bat atera zuen bere komunikazio-kanalaren bidez, festa-guneetan eraso sexistei aurre egiteko. Gaztekeraz eta euskaraz, erasoren bat pairatuz zein ikusiz gero zer egin behar den eta zer pauso egin behar diren zehazten du. Gainera, bideoak jada eskura dauden hainbat baliabide ezagutarazten ditu, hala nola informazio eta babeserako telefono morea (699 16 53 75), Talde Morea (laguntza-sare gisa funtzionatzen



duen pertsona trebatuen taldea, erantzun koordinatuak emateko), eta informazio eta laguntzarako guneak.

Agoizko Udala, eraso sexisten aurkako bere konpromiso irmoan, duela 20 urtetik ari da lanean emakumeen aurkako indarkeria-aren kontra.

Flamasats-en porrotaren ostean, zoru industrialak publiko bihurtzea proposatu du Agoitzek

Flamasats enpresak Siemens Gamesaren antzinako instalazioetan pizgailuak egiteko proiektuari uko egitea erabaki ostean, 40.000 m² lurzoru industrial jabetza publiko bihurtzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari Agoizko Udalak. 2008ko krisiaren ondorioz, finantza-entitateen eskuetan daude gaur egun lursail horiek, eta giltzarri izan litezke industria-ekimen berriak erakartzeko.

Flamasatsen erabakia kolpe handia izan da herriarentzat (250 lanpostu sortu behar baitzituen), eta in-

bertitzaile eta alternatiba berriak bilatu nahi ditu orain, poligonoa berrindustrializatzeko, Nafarroako Gobernuarekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean. Ángel Martín Unzué alkateak esan du tokiko ekonomia suspertu beharra dagoela, premiaz supertu ere, Siemens Gamesak 2020an alde egin eta Flamasatsen, beharrezko baimen guztiak lortu arren, proiektua bertan behera utzi ostean.

INBERTSIOA. 2023ko otsailean, Flamasatsen iragarri zuen 25 milioi euroko hasierako inbertsioa

egingo zuela lantegian, eta 40 milioi eurora ere iritsi zitekeela, eskariaren arabera. Hain zuzen ere, instalazioek 33.000 m² baino gehiago dituzte nabe eta bulegoetarako, 88.000 m² baino gehiagoko lursail batean.

Hala, Siemens Gamesaren egoitza izandakoa Kataluniako konpainiak munduan duen seigarren fabrika izateko zen. "Operazioa azkar itxi ahal izan zen Agoizko Udalak, Sodenak eta Foru Gobernuak emandako erabateko laguntzari esker".

1,3 milioi euro baino gehiago Nafarroako Lurralde Kohesiorako Funtsetik

Agoizko Udalak 1.384.100,79 euro jaso ditu Nafarroako Lurralde Kohesiorako Departamentuak nafar udal eta kontzejuei 2024rako eman dizkien 300,3 milioi euroetatik; zinez banaketa historikoa izan da. Aurreko urtearekin alderatuta, % 4 hazi da funts hori, eta tokiko entitateek kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzen jarraitzea eta haien funtzionamendu eraginkorra ziur-

tatzea du helburu.

Udal-finantzaziorako eredu berriak, 2022an ezarriak, aurreko despaketotasunak zuzendu ditu, eta, hala, finantza-egonkortasuna eman eta zuzkidurak egokitu ditu (KPI gehi bi puntu gehigarri). Agoitz, eta Nafarroako lurralde-garapenerako beste udalerririk funtsezko batzuk ere, neurri horren onuraduna izan da, zerbi-

tzuak emateko eta bizilagunen ongizatea hobetzeko gaitasuna indartuta.

1,3 milioi euro baino gehiago esleituta, Agoitzek bere zerbitzu publikoak hobetzen jarraitu ahal izango du. Hark, bestetik, Nafarroako Gobernuak lurralde-kohesioarekin eta tokiko entitate guztien garapen bidezkoarekin duen konpromisoa islatzen du.



10 jarduketa zehaztuta Itoizko Batzordean

Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilari Oscar Chivite buru zela, Agoitz, Longida, Artziabar eta Orotz-Betelu hobetzeko 10 proiektu zehaztu ziren bilera batean, Agoitzen. 650.000 euroko inbertsioa da guztira. Itoizko Batzordearen esparruan adostutako jarduera horiek herri horietako zerbitzu publikoak hobetzea dute helburu.

Lan nagusien artean, Agoizko futbol-zelaiaren aldagelak handitzea eta Merkatu plazan lursaila erostea dira nabarmentzekoak; 305.500 euroko inbertsioa jotzen dute. Olaldean (Orotz-Betelu), bestetik, espaloi bat egingo da, eta, Longidan, kaleak zolatu. Artziabaren, hainbat erreforma egingo dituzte, besteak beste, hirigintza-planak eta suteen aurkako

jardueren planak idazteaz gain, eta Urdirutzen, zehazki, zubi bat berrituko dute.

Itoizko Batzordeak, tokiko ordezkariak eta Ebroko Ur Konfederaziokoek osatuak, Itoizko urtegiak lurraldean duen inpaktua konpentsatu nahi du inbertsio horien bidez.

Horrez gain, batzordeak Ekaiko zerrategiaren auzoaren lehen-goratzeari heldu zion, erabilera sendotzeko ikerketa eta proiektuekin, eta Nagoreko UGPSa aldatzeari ere, zeinari esker jarduketa berriak egin ahalko baitira inguru horretan, hala nola Angordoiko harreragunea zabaltzea. Neurri horiek Nafarroako Gobernuak urtegiak kaltetutako herri horietako zerbitzuen garapenarekin eta hobekuntzarekin duen konpromisoa nabarmentzen dute.



Agoitzek Pirinioaurrearen turismo jasangarrirako inbertsio garrantzitsuak jaso ditu

Nafarroako Gobernuak 6 milioi euro baino gehiago bideratu ditu Europako funtsetatik turismo jasangarrirako proiektuetara. Pirinioaurrea eta Zangozerra dira saritutako eskualdeak, eta Agoitz onuradunen artean dago. Funtsak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren parte dira, eta turismo jasangarri, digital eta berritzailea sustatzen duten ekimenean inbertituko dira, inguruko ondare natural eta kulturala indartzeko.

Agoitzen, zehazki, hainbat jarduketa egingo dira, hala nola bidezidorren sarea eguneratu

eta seinaleztatzea, Kanpondoa bizikleta-zentroan bizikletak kargatzeko eta garbitzeko zerbitzuak jartzea, orkideen parkea eta Zalurribarko monasterioari balioa ematea. Basoetako Suteen aurkako Udal Ekintza Plana ere ezarriko da, eta begi engainagarri bat jarriko da herriko erdigunean dagoen espazio degradatu bat edertzeko. Horrez gain, Cuéntame Aoiz (paisaia soinudunak QR-rekin) eta En Aoiz hay una calle adoquinada ekimenak kontuan hartu behar dira. Longidarekin batera, Agoitz-Aos-Longida begizta proiektatzen ari da (bizikletentzako sare bat, Eurovelo 3ren osagarri).

Esku-hartze horiek ahalegin zabalago baten parte dira: Irunberrin bizikletentzako ibilbide bat sortzea eta Aragoi ibaian zehar bide bat egitea, Esatik eta Zangozatik igaroz. Proiektu horiek "turismo urdin" jasangarria sustatzea dute helburu, eta ingurune naturala kontserbatzen eta herri horiek bisitatzen dituztenei kalitatezko esperientziak eskaintzen lagunduko dute.

Inbertsio horiek ezinbestekoak dira landa-eremu horietan turismoa biziberritzeko eta, bidena-bar, lurralde-kohesioa eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko.

NUKFK hitzarmen giltzarriak onetsi ditu Nafarroako Gobernuarekin

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) argi berdea eman die Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hiru hitzarmen garrantzitsuri. Hitzarmen horien helburua da toki-entitateen kudeaketa eta aholkularitza indartzea eremu estrategikoetan, hala nola herri-ondasunen berreskurapenean, ontzien kudeaketa eta energia-arloko prestakuntzan. Hitzarmen horietako lehenak

ikertuko du ondare komunalekoak izan ote daitezkeen Elizak immatrikulatutako 2.952 ondasunetako batzuk. Landa Garapeneko Departamentuak ondasun horiek aztertu eta haien titulartasuna egiaztatuko du, eta NUKFa, berriz, ikerketa teknikoaz arduratuko da, interesa duten tokiko entitateen izenean. Bigarren akordioa ontzien kudeaketari buruzkoa da. NUKFK laguntza teknikoa eskai-

niko die tokiko entitateei Ecoembesek proposatutako hitzarmen berriari buruz orientatzeko; izan ere, indarrean dagoen birziklatze-araudiarekin bat egin da hitzarmena. Hirugarren hitzarmena prestatzen ari dira oraindik, eta tokiko entitateetako langileak energiaren arloan gaitzea du helburu, gida espezializatu bat egin eta udal-langileak behar bezala trebatuz.

Agoitz ura aurrezteko kanpainari atxiki zaio

Agoitzek bat egin du Nafarroako Gobernuaren ekimen batekin, herritarrak ura aurrezteko eta etxean modu arduratsuan erabiltzeko beharraz sentsibilizatzeko helburuarekin. Nafarroako 36 udalerririk bat egin dute kanpainarekin, eta, besteak beste, 24.000 harea-erloju banatuko dira herritarren artean, dutxen iraupena kontrolatzeko. Izan ere, gehienez lau minutukoak izatea gomen-

datzen dira, OMEren irizpideen arabera. Dutzatzeko denbora murrizteak, ura aurrezteaz gain, energia-kontsumoa murrizten laguntzen du, eta, ondorioz, berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen dira eta energia-fakturaren aurrezten da. Kanpainan parte hartuta, Agoitzek jasangarritasunarekin eta ingurumenaren babesarekin duen konpromisoa islatzen da. Harea-erlojuez gain,

informazio-liburuxkak banatuko dira, ura aurreztearen garrantziaz herritarrak hezteko. Ekimena LIFE NAdapta europar proiektuaren parte da, zeinak tokiko komunitateak klima-aldaketara egokitu nahi baititu. Gainera, Klima eta Energiaren aldeko Alkatetzen Itunaren (PACES) barruan dago, zeinari dagoeneko Nafarroako 200 udalerrri baino gehiago atxiki baitzaizkio, Agoitz, besteak beste.

101.649 euro uraren zikloa digitalizatzeko


Agoitzek 101.649 euroko laguntzak jaso ditu uraren hiri zikloa digitalizatzeko. Dirulaguntza Next Generation EB europar funtsek finantzatzen dute. Nafarroako Lurralde Kohesiorako Departamentuak sustatutako ekimen horrek 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan eraginkortasuna hobetzea eta ur-galerak murriztea du helburu.

Agoizko proiektua programa zabalago baten barruan kokatzen da; programak horrek 1,9 milioi euro banatu ditu guztira Nafarroako 22

toki-entitateen artean. Laguntza horiei esker, udalerriek telekudeaketa- eta teleirakurketa-teknologiak ezarri, banaketa-sareak

sektorizatu eta erregistratu gabeko ura murriztuko dute. Azken arazo horrek landa-eremuei eragiten die bereziki.

Agoitzen, hornidura-azpiegiturak modernizatzea bideratuko dute inbertsioa, ur-hornidura hobeto kontrolatu eta sareko galerak murriztuko direla ziurtatzeko. Ahalegin hori bat dator Nafarroako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailearen helburuekin. Plan horren helburua da klima-aldaketaren erronkei aurre egitea uraren kudeaketa eraginkorrago baten bidez.



Ekintza bandalikoak igerilekuetan

Abuztuaren 4an, igandearekin, goizaldean, Kanpondoako instalazioek kalte handiak jasan zituzten, nahita; bandalismo-ekintzak zinez tamalgarriak dira Udako igerilekua eta barbakoen atseginlekua kalte-tetu zituzten txikizioek. Hartara, azpiegitura publikoen funtzionaltasuna ez ezik, komunitatearen zentzua eta errespetua ere kaltetu zituzten. Zoritxarrez, ez da gertaera bakana izan. Azken hilabeteotan, ekintza bandalikoak

gertatu dira Agoizko hainbat gunere publikotan. Jokabide-eredu horrek, guztion ondare diren azpiegiturak arriskuan jarri ez ezik, legezko ondorio larriak ekar ditzake ekintza horien egileentzat.

Udaletik, Agoizko auzokide guzti-guztien konpromisoan sinesten dugu, eta, hartara, espero dugu ingurunea behar bezala mantendu eta zainduko dugula, elkarbizitza eta elkarrekiko errespetua gure

gizartearen zutabe baitira. Mezua argia da: gure ingurunearen eta ondasun komunen babesa guztioi dagokigun zeregina da eta soilik elkarlanarekin eta elkarrekiko errespetuarekin bermatu ahal izango dugu Agoitzek elkarbizitza baketsua ezaugarri nagusia izaten jarraitzea. Beharrezkoa da gure ondare komuna babesteko eta baloratzeko erronka gure gain hartzea. Denon artean, Agoitz zaindu beharra dugu.



Palestinarekiko elkartasuneko mozioa onetsi du Agoizko Udalak

Azken osoko bilkuran, Agoizko Udalak, EHBilduk proposatuta, herri palestinarren eskubideekiko konpromisoa eta Yala Nafarroa plataformaren Palestinaren aldeko manifestuarekiko atxikimendua berresten dituen mozioa onetsi zuen. Mozioak gogor gaitzesten ditu Israelek Palestina-

ren aurka 76 urte baino gehiagoz egindako okupazioa, apartheid eta giza eskubideen urraketa sistematikoak.

Testuak, udal-korporazioaren babesarekin, Espainiako Gobernuari eskatzen dio Gazako zerrendan berehalako su-etena exijitzeko eta korridore humanitarioen irekiera bultzatzeko, elikagaiak eta botikak eskuratzeko aukera bermatzeko. Gainera, mozioak eskatzen du Israeli armen eta petrolioaren enbargoa ezartzea, NBEk eskatutakoaren ildotik, eta herrialde horrekin teknologia militarren salerosketa etetea, indarkeria- eta okupazio-ekintzek irauten duten bitartean.

Udalak konpromisoa hartu du, halaber, Israelekin lotutako jarduera ekonomiko, kultural edo kiroliek ez babesteko, eta okupazioan laguntzen duten enprekin kontratazio publikoa saihesteko. Era berean, Nafarroako Gobernuari eskatu dio kontratazio-araudian klausula zorrotzagoak sartzeko, giza eskubideen arloan nazioarteko legezkoatasuna babesteko.

Azkenik, udalak konpromisoa hartu du UNRWari eta giza eskubideen defendatzaile gisa Palestinan lan egiten duten beste batzuei laguntzeko, eta, horretarako, espazioak utziko ditu eskualdeko egoera eta Palestinako herria bera ikusarazteko.



Paula Huarte Cosín, artista multifazetiko

Paula Huarte Cosín artista agoiztarra Gasteizko Montehermoso Kulturunera itzuli zen, 'Lágrimas de cocodrilo' erakustaldiarekin. Egunerokotasuna eta irudizkoa nahasten dituen bere estiloagatik ezaguna, Huartek zeramikazko eta tapizezko eskultura batzuk aurkeztu zituen; lehen begiratuan haurtzaroa gogorarazten bazuten ere, narratiba kezkarriagoa eta anbiguoagoa ezkututzen zuten.

Berriro erakutsi du eraikin historiko horretan, lehenago ere haren obra jaso baitzuen. 'Último día en el parque' erakustaldiari esker, tokiko eszena artistikoaren esker ona lortu

zuen. Proiektu berria, 'Lágrimas de cocodrilo', 62 proiekturen artean aukeratu dute, eta Montehermoso ekoizpenerako ematen dituen laguntzen parte da. Hartara, Nafarroako artista emergente interesgarrienetako bat da egun Huarte.

Artean prestakuntza akademiko sendoa duela, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta masterra Zeramika, Artea eta Funtzioan eginda, Huartek berezko estilo bat finkatzea lortu du, grabatua, ilustrazioa eta zeramika uztartzen dituen, bitarteko horiek integratuz lengoia artistiko koherentea eta multifazetiko sortzeko. Zorionak, Paula!



Kostradaren Krosaren XXV. edizioa

Pasa den ostiralean, abuztuak 9, Kostradaren Krosaren 25. edizioak zirrara handia eragin zuen beste behin ere Agoitzen. Nafarroako egutegian gehien espero diren kirol-ekitaldietako bat da krosa. Herriko festen "aperitibo" bihurtu den lasterketa honek 360 parte-hartzaile bildu zituen, beroa eta emozioa nagusi izan zirela.

Gizonezkoetan, Zizur Nagusiko Andoni Acebedo gailendu zen; erabateko garaipena izan zen, 19 minutu eta 59 segundotan egin baitzituen 6 kilometroak. Acebedo hasieratik izan zen nagusi lasterketan, eta loar Tabarrek bigarren postuan bukatu zuen Markel Barrio ere igo zen gizonezko podiumera, Ion Bermejorekin esprint estua izan ostean.

Emakumezkoetan, Uhart Arakilgo Maite Beregañak lortu zuen lehen postua, 25:25eko denborarekin; bere erritmo konstanteari esker, bere lehiakideengandik aldentzea lortu zuen. GANA klubeko Silvia Oscozek bigarren bukatu zuen, eta Marisa Itoiz agoiztarak, hirugarren.

Acebedok poza adierazi zuen lasterketaren antolakuntzarekin eta giroarekin; Beregañak, berriz, Agoitzen estreinako aldiz parte hartuak, datorren urtean itzultzeko asmoa adierazi zuen.

Kostradaren Krosa, lehiaketa bat izateaz gain, ospakizun komunitarioa ere bada; izan ere, ekitaldia amaitzeko, probari izena ematen dion postre tipikoa jaten da: kostrada. Probaren zilarrezko ezteiak izan dira aurtien, eta zinez arrakastatsua izan da, aurreko urteko parte-hartzea nabarmen gaitzitu baitzuen, eta argi eta garbi erakutsi baitzuen Agoitzek kirolarekiko eta jai-bizikidetzarekiko duen konpromisoa.



Foterxs de AoiZ/Agoitz